

EKBren ahalegin hau informazio-bidetik doa. Ez da hizkuntzalari edo espezialistentzako aldizkaria; Euskararen normalkuntza sozialari buruzko informazio-sailaren barruan sartzen da buletin berria. Europako hizkuntza gutxituen etorkizunaz eta orokorki Europako hizkuntz politikaz eta dinamikaz kezkatuta daudenen eta Euskal Herrian bertan Euskararen eta Euskal Kulturaren alde dihardutenen arteko lotura izan nahi du.

Jakina da Euskararen eta Euskal Kulturaren etorkizuna Herri honetan bertan landuko dela, eta larriena horixe dela; baina ez da ahantzi behar Munduko eta Europako hizkuntzen arteko lehia horretan bilatu beharko duela bere lekua Euskarak ere, inola biziko bada. Horregatik beharrezkoa da Euskararen inguruko nazioarteko ikuspegia ere lantzea. Informazioaren bidez aurrenik.

Sekula baino ozenagoa da Etxepareren kantaren oihartzuna, orain lelo berri batez osotuta: Euskara, ialgi adi Europara!

Hizkuntz labirintoaren erdigunearen bila “Txepetx”en “Un futuro para nuestro pasado”

Sanchez Carrión, José M. “Txepetx”: Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas, Donostia, 479 orr.

Horrela du titulua, 1987an José María Sánchez Carrión “Txepetx”ek argitaratu zuen tesi-liburu mardulak; ordutik hona aski ezaguna eta aipatua euskalgintzan dihardutenen artean; soziolinguistikako horrelako inolako liburu gutxitan izan da seguruenik aztergai hain erabilia artikulutan, mintegitan eta hitzalditan: Euskal Herrian behintzat sekula ez. Zalantzarik ez, arrakasta handia izan duela. Horren adierazgarria da oraingo bigarren argitalpen hau.; eta horren berri ematen du, hain zuzen ere, bigarren argitalpen honen eranskinean Julen Arexolaleibak, autoreari eta obrari buruz idatzitako hamabost bat orrialdeko aurkezpen bio-bibliografikoan.

Liburuak dakarren beste elementu berria Txepetx-ek berak bigarren argitalpen-rako egindako lau orrialdeko sarrera da, ia dena euskaraz. Gainerantzean lehen argitalpenarekin eskatuz berdin-berdina da bigarren hau.

Irudi poetikoz jantzirik eta sinbolo iradokiorrez bildurik eman ohi du Txepetxek sarritan bere pentsamendua. Jakin aldizkarian (42-43 zenbakian) bere liburuaren aurkezpena egiteko idatzirik artikuluan, ibai-ertz batetik bestera ardia, otsoa eta aza banan banan eta aza ardiaren arriskutan eta ardia otsoaren arriskutan utzi

gabe bere txalupan pasa behar zituena txalupariaren irudiaz agertzen zигun bere betekizuna liburuan. Oraingoan mendi-gailurrera igotzen laguntzen duen xerparen eginkizuna betetzera omen datorkigu. Sinboloak eta irudiak, kontzeptu teknikoaren artean: Liburu honen aurkibidean honelako tituluak irakur daitezke: “El túnel”, “La salida (I)”, “La salida (II)”, “La leyenda de Manex”, beste hauen artean: “La normalización lingüística: principios generales” edota “La diglosia, concepto graduativo”.

Beste sinbolo bat nabarmendu eta nagusitu ohi da Hizkuntzarekiko Txepetxen iharduneari: Labirintoarena! Hizkuntzaren eta bereziki Euskararen labirintoaren erdigunerako haria askatzera bide dator bera liburu honekin. “Y vislumbé también que metiendo a la vez, en la misma puerta esa llave que acababa de encontrar con la que ya disponía de espacios lingüísticos iba a ser posible tal vez ir abriendo en sucesión cada una de las puertas del laberinto del eje existencial de las lenguas humanas, y de este modo de llegar al centro de un nuevo discurso...”, dio liburuaren sarreran (16. or.); eta hurrengoan: “Este trabajo es un viaje al centro. A algo que ocupa el centro de la vida humana: el verbo, el logos, el lenguaje. Y a algo que ocupa el centro del lenguaje”.

...Eta Hizkuntza gutxiaren Euskararen berreskurapenaren asmoan erdiguneari dagoen “euskaldunon konpaktazioa”, erants zezakeen, nolabait bere liburuaren edukina sintetizatuz. Euskararen berreskurapenaren bide labirintikoak garrantzian erdiguneko gelako argi-giltza aurkitu asmoa eta ustea du Txepetxek: Euskaldunon konpaktazioa deritza horri, euskaldunon baterakuntza euskararen inguruan.

“Un futuro para nuestro pasado” liburua ez da irakurtzen erreza; bertako diagrama ugarien bitartez ahalegin handia egin du idazkeak bere pentsaeraren azalpena didaktikoago egiten; ideia nagusiak horietan nabarmentzen direla esango nuke. Hala ere, irakurleak neke ez txikiak aurkitzen ditu liburuaren hariaren jarraipena egiten eta horren edukinaren eskema panoramikoak eraikitzen. Areago esango nuke, Euskararen berreskurapenaren bidea bihurria eta labirintikoa baldin bada, Txepetxen liburuaren azalpena ere nahikoa labirintikoa dela; irakurlea ere aurrera eta atzera, ezkerretara eta eskuinetara jo beharrean gertatzen da, bide itxiekin maiz tope eginez, labirintoaren erdigunera iritsiko bada. Irakurleak nahiago luke labirintoko haria atetik erdiko gela argitsuraino luzatuta ikusi, horri helduz zuzenean helburura iristeko.

Baina labirintoko bidaia ez da atetik erdigune argitsurainokoa bakarrik, eta bai

handik kanporakoa ere; labirintotik irten egin behar da, barruko misterioa aurkitu ondoren, kanpoko bizitzari berriro ekiteko. Euskararen berreskurapenaren bidegintzari irudia egokituz, zera esango nuke: Euskararen inguruan euskaldunon baterakuntza konpaktazioa, funtsezkoa izanik, bada noski erdigunerako bidean helburuko gela argitsua seinalatuko diguna, baina handik irteteko argi berriak piztu beharra dago, kanporako bidea argituko digutenak: Horien izenak dira “koordinazioa” eta “planifikazioa”. Egileak berak deitzen duen “tensión de ruptura” edo labirintotik itzulerako bideari ekitekoa gertatuko bada, euskararen inguruan bildutako indarrek elkarrekin koordinatu beharra daukate eta euskararen berreskurapenerako plangintza politikoa Euskararen politika egin beharra dago.

“La planificación lingüística” kapituluak, ordea, zortzi orrialde bakarrik ditu liburuan. Hizkuntzarekiko egitura eta mekanismo psiko-soziologikoak aurkitzeaz gain, horietan eragiteko baliabide sozio-politikoak diseinatu behar dira, indar sozialak antolatuz eta berreskurapenerako plangintza orokorra landuz.

Adorez eta Atseginez Mintegia liburuaren euskarazko argitalpen laburtua prestatzen ari omen da. Euskaratzeari oso egoki deritzot; laburtzea beharrezkoa gerta daiteke; nik birmoldaketaren bat ere eskatuko nuke, batetik didaktikoagoa egiteko, eta, bestetik, aipatu ditudan hutsuneak betetzeko edota zenbait elementu sakontzeko eta osotzeko. Zehazkiago esanda: batetik, ideien azalpen linealagoa lortu beharko litzateke, irakurlearen eta aztertzailearen mesedetan; bestetik, euskararen berreskurapenerako koordinazio sozialaren eta planifikazio orokorraren funtsezko arazoak eta baldintza nagusiak aztertu beharko litzuzke.

Euskararen berreskurapenaren makina oso konplexua da: horren mekanismo psiko-soziologikoekin batera horren artikulazio sozio-politikoak diseinatzea beharrezkoa da.

Ikastolen jaialdia: euskararen jaialdia?

Iaz ere, urtero ikastolen alde errepikatzen diren Herrialde-jaialdia burutu ziren: Bizkaiko Ibilaldia, Araba Euskaraz, Iparraldeko Herri urrats, Gipuzkoako Kilometroak eta Nafarroa oinez. Gipuzkoakoak XIV. urtea bete zuen. Besteak gazteagoak dira.

Orain neguan neguan gaudela eta aurtengo urteari eta ondoko urteei begira, beharrezkoa dirudi gogoeta eta eztabaida egitea, euskararen alorrean egiten diren ekintza herritar garrantzizko eta jendetsu horiei buruz.